



Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

**Aniztasuneko  
Bizikidetzarako Foru  
Plana: Diskriminazio eza  
bultzatzeko ekintzak**

## HITZAURREA

2018an, Giza Eskubideen Deklarazio Aldarrikapen Unibertsalak 70 urte betetzen ditu. Deklarazio honek pertsona guztien berdintasuna goraipatzen du. Gure mundu modernoan, hainbat hobekuntza izan dira pertsona guztien berdintasunaren alde, esparru guztietan, legerian, gizartean, eta ekonomian. Hala ere, badira gure lurraldean ere, pertsonen duintasunaren kontrako jarrerak. Horrela gertatzen da pertsona bere jatorri, etnia, kultura, erlijioa, genero identitate edo orientazio, ideologia, hizkuntza edo gaitasun fisikoaren arabera diskriminatzen dugunean.

Nola eraiki orduan giza eskubideetan oinarrituta eta kohesio soziala helburu duen Gipuzkoa berdinago eta bazterkeriarik gabekoa?

2015-2019 legealdirako plan estrategikoan, Gipuzkoaren erronkak direla eta, bost helburu estrategiko jaso genituen, eta horien artean, bigarrenarekin eta bosgarrenarekin lotura du Aniztasunean Bizikidetzaren Planak. Hau da, alde batetik, gure gizartearen ongizatea eta kohesio erdua sendotzea eta, bestetik, herritarren arteko elkarbizitza finkatzea.

Elkarbizitza sendotzea ez soilik bakegintzari dagokionean dagokionez, baita aniztasunaren kudeaketa positiboa egiten. Hau da, aniztasuna balorean jarriz eta bermatzen honek ez duela diskriminazioa eragiten ez duela bermatzen.

Gipuzkoako Foru Aldundiak berdintasuna bultzatzeko apustu sendoa egin du lurraldean, baita aniztasunean bizikidetzaren bultzatzeko eta bazterkeriaren aurka borrokatzeko esparruetan ere.

Bazterkeria eza izan behar da, gure ustez, gizartea kohesionatzeko eta bizikidetzaren bultzatzeko giltzarria.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Departamendu eta zuzendaritza ezberdinetik helburu honen lorperako egiten diren ekimenak eta garatzen diren programak bateratu eta plan batean barneratu ditugu, berdintasuna bultzatzeko eta diskriminazioaren kontra egiteko.

Plana 2 urtekoa izango da, epe laburrekoa beraz, modu koordinatuan eta zeharkako kudeaketan eragin nahi da, eta lurralde osora zabaldu nahi da. Hau da, Foru Aldundian tresna berberaren bidez, Foru Aldundian, Gipuzkoan dauden aniztasun guztien aurrean bereizketa eza bultzatzea da helburua, modu koordinatuan, aldundi barruan eta beste instituzioekin, eta eragileekin koordinatuta.

Aukera berdintasuna eskubideen mailan kokatu behar dugu, laguntza behar duenak asistentzia izan behar du, baina instituzio bezala, asistentziaz haratago, pertsonen eskubideak bermatzea dagokigu, eta aukera berdintasuna erreala izan dadin diskriminazioari ekidin, neurri konkretuekin, programa konkretu batekin.

Aniztasuna zentzu zabalean, pertsonaren jatorriak markatzen duen aniztasuna, etniarena, genero identitate edo sexu orientazioa, erlijioarena edo gaitasun funtzionalarena. Ikuspegi zabal honetatik diskriminazioaren kontra egiteko.

Gure helburua azken finean Gipuzkoa Europako lurraldeen artean ezberdintasun gutxienean dutenen artean kokatzea da, hau da, diskriminazioari aurre egin nahi diogu, lurralde kohesionatua izan, giza eskubideak errespetatzen eta oinarri dituen herritarrez osatutakoa.

Markel Olano

Diputatu Nagusia



1. Testuingurua.

1.1. Sarrera.

1.2. Aniztasunaren eta diskriminazio ezaren inguruko nazioarteko politikak

1.3. Abiapuntua: Gipuzkoako zenbait datu.

1.4. Foru Aldundiaren aurrekariak eta egitura.

2. Laneko esparru orokorra

2.1. Eginkizuna.

2.2. Helburuak.

2.3. Planaren oinarriak eta jarduteko eremuak.

2.4. Foru Aldundiko beste arlo batzuekin koordinatzea.

3. Ekintza plana

## 1. Testuingurua

### 1.1. Sarrera.

Gipuzkoako Foru Aldundiak berdintasuna bultzatzeko apustu sendoa egin du lurraldean, baita aniztasuneko bizikidetzak bultzatzeko eta diskriminazioaren aurka borrokatzeko esparruetan ere.

Gipuzkoak beti bultzatu izan du (bai elkarte zibilen bidez, bai elkarte horien erakundeen bidez) aniztasunaren defentsa eta sustapena. Eta Foru Aldundiak, orain, lan hori finkatu, eta beste urrats bat eman nahi du: **diskriminazio eza izan behar da, gure ustez, gizartea kohesionatzeko eta bizikidetzak bultzatzeko giltzarria eta funtsezko euskarria.**

Hori dela eta, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak **Gipuzkoako egungo aniztasuna ikusarazi nahi du, bai migrazio mugimenduek ekarritako aniztasuna, bai genero identitateak, sexu orientazioak, gaitasunen aniztasunak eta bestelakoek ekarritako aniztasun osoa.**

Helburua hau da: aniztasuna ikusarazteaz gain, **politika publikoen bidez** aukera berdintasuna **bultzatzea** eta eguneroko bizitzan gure inguruko gizartearen, kulturaren eta politikaren esparruetan **baldintza berdinetan sarbidea izateko eta parte hartzeko pertsona orok duen eskubidea** gauzatzea.

Horren guztiaren erakusgarri, 2016. urtetik hainbat gizarte eragilerekin ari dira lanean, Aniztasuneko Bizikidetzak bultzatzeko Ekintza Plan hau eraikitzeko. Planak 2017-2019 aldia hartuko du barne.

### 1.2. Aniztasunaren eta diskriminazio ezaren inguruko nazioarteko politikak

*Gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela.*

*Gizaki orori dagozkio Aldarrikapen honetan adierazitako eskubide eta askatasunak, eta ez da inor bereiziko arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorterrria edo gizarteko jatorria, ekonomia maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik.*

*Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala, 1948*

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko esaldi ospetsu horiek ezarri zuten giza eskubideen nazioarteko sistemak gaur egun duen oinarria. Ildo horretan, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenak, 14. artikuluan, diskriminazio ezaren printzipioaren aitortza jasotzen du. Honako hau zehazten du: “Hitzarmen honetan aitortutako eskubide eta askatasunak baliatzea bermatu behar da, inolako bereizketarik egin gabe, batez ere sexua, arraza, larru-kolorea, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoak edo bestelakoak, jatorri nazionala edo soziala, gutxiengo nazional baten kide izatea, aberastasuna, jaioterria edo beste edozein egoeraren ondorioz”.

Hitzarmenaren 12. protokoloa Europar Kontseiluak Berdintasunaren alde egiteko eta diskriminazioaren aurka borrokatzeko duen kezkaren ondorioa da. Protokolo horren 1. artikulua (izenburua: “Diskriminazio eza, oro har”) hau xedatzen du: “1. Legeak aitortutako eskubide eta askatasunak baliatzea bermatu behar da, bereizketarik egin gabe, batez ere sexua, arraza, larru-kolore, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoak edo bestelakoak, jatorri nazionala edo soziala, gutxiengo nazional baten kide izatea, aberastasuna, jaioterria edo beste edozein egoeraren ondorioz. 2. Agintaritzak publikoak ezingo du inor diskriminatu (...)”

Bestalde, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ondorioztatu du diskriminatzea hau dela: pareko egoeran dauden pertsonen tratu ezberdina ematea, justifikazio objektiborik eta zentzuzkorik gabe (*ezberdintasunagatik diskriminatzea*)<sup>1</sup>. Hala ere, diskriminatzea honako hau egitea dela adierazten du: egoera nabarmen ezberdinean dauden pertsonen tratu berdina ematea, justifikazio objektiborik eta zentzuzkorik gabe (*axolagabetasunagatik diskriminatzea*)<sup>2</sup>.

Aipatzekoa da axolagabetasunak eragindako diskriminazioaren doktrinaren bidez, berdintasun material deritzoguna lortzeko aurrerapausoak eman daitezkeela. Berdintasun hori lortzeko, arauak egiteko eta aplikatzeko unean pertsonen benetako egoera zein den hartu behar da kontuan. Hala, itxura batean ezberdinak diren arauen bidez “etengabe gutxiagotasun egoeran dauden pertsonen benetako parekatzea lor daiteke”<sup>3</sup>. Berdintasun materiala lortzeko, botere publikoei eskatu behar zaie eskubideen eraginkortasuna bermatuko duten neurriak hartzea, berdintasun eraginkorra eta benetakoa lortzeko<sup>4</sup>.

Baina, gaur egun, diskriminazioaren aurkako borroka oraindik eguneroko lana da mundu osoan barrena dauden milioika pertsonentzat. Nazioarteko hainbat erakundek hau frogatu dute: **diskriminazioa eta oinarriko eskubideen sarbiderik eza lotuta daudela, eta talde batean baino gehiagotan gertatzen direla**. Diskriminazioa –diskriminazio etnikoa, migratzaileen eta erlijio komunitateen aurkako, generoaren edo adinaren diskriminazioa (adineko pertsonak, haurrak edo gazteak), gaitasunen aniztasuna duten pertsonen aurkako, LGBT kolektiboaren aurkako– jasaten duten hainbat pertsonak egunegun diskriminazio egoerei aurre egin behar diete, gizarteko bizitzaren alderdi askotan ezin dutelako baldintza berdinetan parte hartu eta ezin dituztelako haien eskubideak gauzatu. Europar Batzordeko txostenek –adibidez,

---

<sup>1</sup> Belgikako irakaskuntzako hizkuntza erregimenari buruzko zenbait alderdiri buruzko gaia. Uztailaren 23ko epaia, 1968koa (osoko bilera). 1677/1962, 1691/1962 eta 1474/1962 zenbakiko demadak.

<sup>2</sup> *Thlimmenos contra Grecia*, 2000ko apirilaren 6ko epaia (Sala Nagusia), 34369/97 zenbakiko demanda.

<sup>3</sup> CARMONA CUENCA, E., “La prohibición de discriminación (GEEHren 14. art. eta 12. protokoloa)”, in GARCÍA ROCA, J. eta SANTOLAYA, P. (koord.), *La Europa de los derechos. El Convenio Europeo de Derechos Humanos*, Ikasketa politiko eta konstituzionalen zentroa, Madril, 2005, 665-695, or. 681. or., zehazki.

<sup>4</sup> EDEL, F., *L’interdiction de la discrimination par La Convention européenne des droits de l’homme*, Conseil de l’Europe, Strasbourg, 2010, 79. or.

“Discrimination in Europe in 2015”<sup>5</sup>– diskriminazioa eragin dezaketen hainbat esparru jorratzen dituzte.

Nazio Batuen erakundea eredugarria da, diskriminazioaren aurka eta pertsona guztien eskubideen alde lan egiten duelako. Argi eta garbi adierazten du gobernu guztiek (tokikoak eta eskualdekoak barne) ezarri behar dituztela haien gizartean aniztasuna onartzen duten politikak.

Nazio Batuek Garapen Iraunkorraren Agenda Berria<sup>6</sup> onartu zuten 2015. urtean, 2030 Agenda izenez ezagutzen dena. Agenda horrek epe horretan bete behar diren helburuak eta xedeak zehazten ditu. Plan honek harreman zuzena du 10. helburuak, herrialdeetan eta herrialdeen artean desberdintasunak murrizteari buruzkoak, eta 16. helburuak, gizarte zuzen, baketsu eta inklusiboak sustatzea bilatzen duenak, jasotzen dituzten xedeetako askorekin. “Pertsona guztien gizarte inklusioa eta inklusio ekonomiko zein politikoa indartzea eta sustatzea, edozein dela ere horien adina, sexua, desgaitasuna, arraza, etnia, jatorria, erlijioa edo egoera ekonomikoa, edo beste izaeraren bat”, “aukera berdintasuna bermatzea eta emaitzen desberdintasuna murriztea, lege, politika eta praktika diskriminatzaileak ezabatuz eta horren inguruko legeria, politika eta neurri egokiak sustatuz”, “garapen iraunkorraren aldeko lege eta politika ez diskriminatzaileak sustatu eta aplikatzea” edo “beharrei erantzun dieten erabaki inklusibo, partaidetzazko eta ordezkatzaileak hartzea”. Mota horretako xedeak argi eta garbi lotuak daude plan honen proposamenarekin.

Baieztaatu dezakegu azken hamarkadetan hainbat aurrerapen egin direla komunitate ezberdinetatik datozen pertsonen eskubideak onartzeko alorrean. Hala, giza eskubideen nazioarteko lege esparruak diskriminatzeko modu ezberdinei aurre egiteko hainbat tresna ditu. Baina, era berean, egia da talde jakin batzuen eskubideak babesteko esparruan eginiko aurrerapenak ere arriskuan daudela, eta gaur egun ezarrita dauden bermeak suntsitzeko arrisku larria dagoela, nazioartean duela gutxi gertatu diren aldaketa sozial eta politikoen ondorioz.

### *Migratzaileen eta gutxiengo etnikoen eskubideak*

Kalkulatzen da 244 milioi pertsona bizi direla beren jatorrizko herrialdetik kanpo. Hainbat arrazoiengatik migratu dute, adibidez, babes bila edo aukera baten bila. Migrazioa esperientzia positiboa eta ahalduzko modukoa izan daiteke, baina gero eta nabarmenagoa da migrazioa kudeatzeko moduak, sarritan, ez daudela eskubideetan oinarrituta.

Migratzaileak, bereziki egoera irregularrean daudenak, beren eskubideak erabat gauzatzeko aukerarik gabe bizi dira; diskriminazioaren eta bazterketaren aurrean egoera ahulean egonda, gizartean, migratzailea izateagatik aurreiritziz beteriko jokabideak eta gaitzespen jokabideak

<sup>5</sup> <http://ec.europa.eu/COMMFrontOffice/publicopinion/index.cfm/Survey/getSurveyDetail/instruments/SPECIAL/surveyKy/2077>

<sup>6</sup> <http://www.un.org/sustainabledevelopment/es/objetivos-de-desarrollo-sostenible/>

jasateko arriskua dute<sup>7</sup>. Migrazioak eskubideen ikuspuntutik jorratzen baditugu, migratzailea jarriko dugu esparru horretako politikaren erdigunean. Hala, arreta berezia jarriko dugu bazterketa egoeretan, edo migratzaileen artean, egoera okerreanean dauden taldeetan.

Nazio Batuek adierazi dute gaur egun oraindik beharrezkoa dela beste komunitate eta etnia batzuen aurka gorrotoa bultzatzen duten jarrera eta jokabide jakin batzuen aurka borrokatzea<sup>8</sup>. Oro har migratzaileen eta gutxiengo etnikoen aurkako gorrotoaren diskurtsoak eta aurkako erretorikak areagotu egin direnez, bistan dago agintari publikoek desinformazioaren aurka eta diskriminazioa bultzatzen duten diskurtsoen aurka borrokatu behar dutela. Erakundeek diskurtso horien aurka borrokatu behar dute. Horretarako, zeharkako hainbat neurri sartuko dituzte beren lanean, eta pertsona guztien eskubideak betetzen direla bermatzeko politikari bide emango diete.

Ildo horretan, Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluan Gutxiengoekin loturiko auzietarako kontalari bereziak hau adierazi zuen<sup>9</sup> egin zuen azken txostenean: “borondate politikoa behar dugu, baldintzarik gabekoa. Horrez gain, legegintzako eta erakundeko esparruak indartu behar ditugu, aniztasunean batasuna duten gizarte bateratuak lortzeko baldintzak sortzen laguntzeko”. Ahalegin handiagoa egin behar da gai horien inguruan sentsibilizazioa eta komunikazioa bultzatzeko. Hala, boterearen inguruan konfiantza sortzeko, boterean sartzeko eta boterea berriz banatzeko neurriak hartu behar dira, populazio talde ezberdinen artean partaide izatearen sentimendua lantzeko, horixe baita gizarte egonkor eta bakezaleen aurretiko baldintza.

#### *Desgaitasuna duten pertsonen eskubideak*

2006ko abenduaren 13an, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmena egin zen. Tresna horren bidez, berariaz gaitasun ezberdinak dituzten pertsonen eskubideak erabat betetzeko beharra ikusarazi zen. Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluak gogorarazi du munduan barrena, desgaitasuna duten pertsonak orain hainbat oztopori aurre egin behar dietela gizarteko esparru jakin batzuetan sartzeko, eta badakitela haien giza eskubideak urratzen ari direla.

Hitzarmenak aniztasun funtzionala duten pertsonak babesten ditu, zer desgaitasun mota duten edo izan dezaketen aintzat hartu gabe. Arlo intelektualean edo psikosozialean desgaitasuna duten pertsonak hartzen ditu barne. Baina berriz ere ebaki handia ikusten dugu legeen errealitatearen eta eguneroko praktikaren artean: gaitasun ezberdinak dituzten pertsonen

---

<sup>7</sup> Migration and Human Rights:

<http://www.ohchr.org/EN/Issues/Migration/Pages/MigrationAndHumanRightsIndex.aspx>

<sup>8</sup> Ikusi 2017ko martxoaren 21eko aldarrikapena:

<http://www.ohchr.org/EN/NewsEvents/Pages/DisplayNews.aspx?NewsID=21416&LangID=E#sthash.0fcQmlXF.dpuf>

<sup>9</sup> 2017ko urtarrilaren 9ko txostena:

<http://www.ohchr.org/EN/Issues/Minorities/SRMinorities/Pages/SRminorityissuesIndex.aspx>



bizitzan eginiko ageriko aldaketetan eta funtsezko hobekuntzetan, arauetan jasotzen dena<sup>10</sup> islatu behar da eta, horretarako, gaitasun ezberdinak dituzten pertsonen laguntzeko sistemak ezarri behar ditugu, gizartean egiten duten bizitzaren hainbat alderditan aske aukeratu ahal izatea eta baldintza berdinetan parte hartzea bermatzeko.

#### *LGBTIQ+ pertsonen eskubideak*

Azken urteotan, nazioarteko erakundeek ikusgarritasun handiagoa eman diete LGBTIQ+ pertsonen dagozkien eskubideen urraketari. Hala, ikusarazi dute, sexu orientazioagatik eta genero identitateagatik, eskualde guztietako pertsonen aurka egon ohi direla indarkeria eta diskriminazioa dakarten jarraibide sistematikoak. Diskriminazio hori lanean, osasun arretan eta hezkuntzan gertatzen da, eta eraso fisikoak ere egon daitezke<sup>11</sup>. Hori dela eta, garrantzitsua da lesbianek, gayek, bisexualek, transexualek eta intersexualek sexu orientazioagatik edo genero identitateagatik jasaten dituzten diskriminazio mota ezberdinei aurre egitea. Hala egiten ari dira munduan barrena tokiko nahiz eskualdeko hainbat eta hainbat agintari<sup>12</sup>.

#### *Zeharkako kontuak: emakumeak, gazteak eta hainbat diskriminazio*

Ezin dugu alde batera utzi, gainera, gizarte ororen barruan, talde espezifiko batzuek (adibidez emakumeek, neska-mutikoez eta adinekoek) zailtasun berezietan eta hainbat motatako diskriminazioei aurre egin behar dietela beren berariazko ezaugarriengatik, egoera bereziengatik edo identitatearengatik.

Emakumeak ahalduntzeko bidean egon ohi diren oztopoak, harreman sozialik, ekonomikorik, sarerik edo laguntza talderik ez izateak, eta talde jakin batzuetako emakumeen artean erreferentziatzeko eredu gutxi izateak, nabarmen eragiten dute emakumeek eta neskatiliek giza eskubideak baliatzeko aukeran.

Hori dela eta, fenomeno horretan arreta jarri behar da askotariko diskriminazio horiei aurre egin diezaioketen pertsonen egoera erabat ulertzeko, eta emakumeen eta gazteen jabeakuntza sustatzeko, beren komunitateetan aldaketen eragile gisa jardun dezaten<sup>13</sup>.

<sup>10</sup> <http://www.ohchr.org/en/NewsEvents/Pages/DisplayNews.aspx?NewsID=21018&LangID=E>

<sup>11</sup> [http://www.ohchr.org/Documents/Publications/BornFreeAndEqualLowRes\\_SP.pdf](http://www.ohchr.org/Documents/Publications/BornFreeAndEqualLowRes_SP.pdf)

<sup>12</sup> <http://www.ohchr.org/Documents/Publications/LivingFreeAndEqual.pdf>

<sup>13</sup> Ikusi, besteak beste:

<http://www.ohchr.org/EN/Issues/Minorities/SRMinorities/Pages/SRminorityissuesIndex.aspx>

### 1.3. Abiapuntua: Gipuzkoako zenbait datu.

Gipuzkoako aniztasuna jorratzeko, hainbat ikuspuntu begiratu eta txertatu behar dira: ez da erraza lurraldean dauden aniztasun mota ezberdinen artean, diskriminazioa zerk eragin duen aztertzea. Baina abiapuntua ulertzeko, datu batzuk aipatuko ditugu. Hala, hobeto ulertuko dugu zer garrantzitsua den desberdintasun egoeren ondorioz pertsonak aurre egin behar duten kasuetarako plan bat izatea.

Gipuzkoako biztanleek atzerriko immigrazioarekin loturiko aniztasunaren inguruan dituzten jokabideei buruzko azken datuen arabera<sup>14</sup> baieztatu dezakegu ez dagoela jarrera negatiborik atzerriko immigrazioarekin loturiko aniztasunaren inguruan: ez da arazotzat jotzen, aintzat hartzen da gizartean eragin positiboa duela, eta gehienek bizikidetzan giro ona dagoela uste dute. Bertako biztanle gehienak prest daude nolabaiteko aniztasun maila duen auzo batean bizitzeko, baina, era berean, atzerriarren jatorriaren arabera, begikotasun-maila aldatu egiten da.

Horrenbestez, gogoratu behar dugu immigrazioaren inguruko onarpen eta jarrera positibo orokor horren barruan, tolerantzia maila ezberdinak daudela. Beste era batera esanda, jarraibide kultural guztiak ez dira maila berean onartzen, eta onarpen maila txikiagoa dago alderdi jakin batzuen inguruan (adibidez, janzkeraren, erlijioaren edo irakaskuntza zentro pribatuen inguruan). Beste era batera esanda, immigrazioaren fenomenoak eragin positiboa duela onartzen da, baina berdinketaren eredura jotzeko joera dago; izan ere, adierazten dute jarraibide kultural eta erlijiosoen jarraibideak immigranteek bete behar dituztela, eta, horretarako, harreran hartu dituen gizartearen jarraibide eta ohitura kulturaletara egokitu behar dutela (Ikuspegi)<sup>15</sup>.

Hori dela eta, garrantzitsua da aniztasunaren zeharkako ikuspuntua sustatzeko planean honako hau bultzatzea: herritarren jarrera positiboa indartu behar da atzerriko immigrazioari datozen aniztasunen inguruan, baina egungo eta etorkizuneko bizikidetzan arriskua ekar dezakeen berdinketarako fokuetan ere arreta jarri behar da. Begi bistakoa da, era berean, migratzaileen aniztasunean ere arreta jarri behar dela.

Jatorriaren aniztasunetik eratorritako ezberdintasunak oinarri hartzen baditugu, ezin dugu ahaztu zenbait esparrutan (lana, etxebizitzak eskuratzea, eta abar) atzerriarrek diskriminazioari aurre egin behar diotela. Langabezia, esaterako, ez da homogenea, eta langabezia poltsa oso esanguratsuak daude pertsonen adinaren eta jatorriaren arabera, egungo soldatetan (generoaren eta lanbide nahiz ekintzen arabera) dagoen ebaki esanguratsua ahaztu gabe. Krisi garaian, areagotu egin da. Esparru horretan, gainera, adinaren eta kontratu motaren aldaerek lotura handia dute prekarietatearekin, ikasketa mailarekin, sexuarekin eta jatorri nazionalarekin. 2008ko langabeziaren datuak (orduan hasi zen krisia)

<sup>14</sup> 2016ko datuak, Ikuspegik eginiko azterlana, GFAk eskatuta:

[http://www.ikuspegi.eus/documentos/fondoikus/bar\\_gipuzkoa\\_2015\\_CAS.pdf](http://www.ikuspegi.eus/documentos/fondoikus/bar_gipuzkoa_2015_CAS.pdf)

<sup>15</sup> [http://www.ikuspegi.eus/documentos/fondoikus/bar\\_gipuzkoa\\_2015\\_CAS.pdf](http://www.ikuspegi.eus/documentos/fondoikus/bar_gipuzkoa_2015_CAS.pdf)

2016ko datuekin alderatzen baditugu, langile migratzaileen artean ondorio suntsitzaileak izan dituela ikusiko dugu. Gainera, Gipuzkoan bizi diren atzerritarren langabezia tasak batezbesteko osoaren tasak baino nabarmen handiagoak dira (Gipuzkoako SOS Arrazakeria)<sup>16</sup>.

Euskadiko ijitoen komunitateak aldarrikatzen du gizartean bizi diren gainerako pertsonen errespetu eta onarpen maila berdina izan behar dutela. Ijitoen komunitateak ere haien giza eskubideak gauzatzeko eta baliatzeko hainbat eragozpen dituzte esparru askotan: azken urteetan, arlo batzuetan (hezkuntza jasotzeko eskubidea eta beste batzuk) hobekuntzak nabaritzen diren arren, ezin dugu ahaztu haien garapen pertsonala mugatzen duten oztopoak daudela. Esate baterako, esanguratsua da ijitoen komunitatekoak diren hiru etxeetatik ia bik adierazten dutela oinarrizko beharrianak betetzeko baliabide ekonomikoak falta zaizkiela, nahiz eta pobrezia egoera larrienak etxe guztien % 42,9an eragiten duen<sup>17</sup>.

Orientazio homosexuala eta identitate transexuala edo transgeneroa duten pertsonak, edota bisexualak nahiz intersexualak diskriminazioaren, estigmatizazioaren eta bazterketaren biktimak izan dira. Frogatu da fobia eta gaitzespena dagoela (homofobia deritzoguna) eta, aurrerapen handiak egin arren, oraindik ez direla erabat gauzatu pertsonak identitate sexuala eta afektiboa edo genero identitatea askatasunez eta berdintasunez bizitzeko beharrezkoak diren baldintzak<sup>18</sup>.

Gazteen artean eta sexu orientazioa edo genero identitatea tarteko aniztasunaren aurrean duten jarrera aztertzen badugu, EAEn eta Gipuzkoan ikus dezakegu gero eta onarpen indize handiagoa dagoela ikasgeletan ikaskide transexual, bisexual, lesbiana eta gayen artean. Baina, era berean, zenbait jokabide homofobo ere ikusten dira; gazteen % 27k beren burua halakotzat jotzen du. Horrenbestez, arauzkoak ez diren orientazioei eta sexu identitateei dagozkien ideia hierarkikoen eta gutxiespena erakusten duten ideien transmisioak benetakoa izaten jarraitzen du sexu bereko eta ezberdineko pertsonen arteko adierazpenen onarpen mailari dagokionez (Behartu)<sup>19</sup>.

Gogora ekar dezakegu transgeneroek eta transexualek talde bereziki ahula osatzen dutela: gainerakoekin alderatuta, desabantaila egoeran daude gizartean. Pertsonentzat funtsezkoak diren bizitzako etapa batzuetan indartsuagoa da, adibidez, nerabezaroan eta gaztaroan. Transexual edo transgenero guztientzat, neurri handiagoan edo txikiagoan, eta denbora luzeagoan edo laburragoan, transgeneroa edo transexuala izatea beren bizitzan bazterkeria izateko faktorea da. Horrenbestez, gizarteak arazo horien inguruko ezagutzak handitzen lagunduko duten ekimenak martxan jarri behar dira, egungo estereotipoak eta aurreiritziak gaindituz, eta edozein indarkeria motari edo gizarte bazterkeriaren egoerari aurre egiteko

<sup>16</sup> 2016ko 2. sei hilekoko immigrazioari eta atzerritartasunari buruzko balantzea SOS Arrazakeria Gipuzkoa – Mugak. <http://www.mugak.eu/news/balance-sobre-inmigracion-y-extranjeria-del-2o-semester-de-2016>

<sup>17</sup> EAEko ijito herriaren egoera, Eusko Jaurlaritz, 2010.

<sup>18</sup> Arartekoa, Euskadiko LGBT kolektiboaren egoera.

<sup>19</sup> Behartu, ikasgeletan aniztasun afektibo-sexualaren aurrean dauden jokabideak (2013-2014) [http://www.gizartelan.eigv.euskadi.eus/contenidos/informacion/berdindu/es\\_berdindu/adjuntos/actitudes%20an%20la%20diversidad%20afectivo-sexual.pdf](http://www.gizartelan.eigv.euskadi.eus/contenidos/informacion/berdindu/es_berdindu/adjuntos/actitudes%20an%20la%20diversidad%20afectivo-sexual.pdf)

berariazko prebentzio neurriak garatuz bizitzako hainbat esparrutan pertsona horiei zuzenduta (Arartekoa)<sup>20</sup>.

Beste datu batzuek erakusten digute gizarte bazterkeriaren egoeraren eragina nabarmen handiagoa dela desgaitasun fisikoa duten pertsonen artean (herritar guztiakin alderatuta). Pertsona horiek, oraindik ere, diskriminazioa jasaten dute hezkuntza eta enplegua lortzeko aukerei dagokienez, gizartean parte-hartzeari dagokionez, nahiz eguneroko bizitza era independentean garatzeko aukerari dagokionez, eta horrenbestez, desgaitasun fisikoren bat duten pertsonak baztertzeko edo gizartean parte hartzeko eta eskubideak erabat gauzatzeko esparruetatik urruntzeko prozesuetan, desgaitasuna da joera horiekin amaitzeko elementua (Elkartu federazioa)<sup>21</sup>.

Ukaezina da euskal gizartean badagoela erlijio-aniztasuna. Erlijio-aniztasuna gero eta handiagoa da, migrazio fluxuen ondorioz nahiz erlijio askatasunaren eskubideaz baliatzearen ondorioz. Horregatik, beharrezkoak dira pertsona guztientzako askatasun bera bermatzen duten politikak. Aipatu behar dugu, batetik, oro har ezjakintasuna dagoela Euskal Herriko errealitate sozio-erlijiosoari buruz, eta, bestetik, euskal gizarteak erlijio-aniztasunari buruz duen hautemateak eta iritziak eragina duela publikoki kudeatzeko moduan. Orokorrean, zailtasunak daude kultur aniztasuna gure gizartearen ezaugarri gisa ulertzeko<sup>22</sup>.

Gipuzkoa ere lurralde eleaniztuna da: bi hizkuntza ofizial ditu, eta 100 hizkuntza baino gehiago hitz egiten dira. Hizkuntza, definizioz, komunikatzeko tresna bat da, baina pertsonak diskriminatzeko ere erabili izan da. Hizkuntza politikak bi hizkuntza ofizialak hitz egiten dituzten pertsonen berdintasun egoeran bermatzea eta gainerako hizkuntzak errespetatzea du helburu. Hizkuntza ekologiak ildo interesgarriak ematen ditu hizkuntza bakoitzari eginkizunak emateko eta hizkuntza horien hitzunen artean bizikidetzatza ziurtatzeko.

Horrenbestez ikus dezakegu diskriminazioak dimentsio asko eta askotarikoak dituela, eta garrantzitsua dela zeharkako ikuspuntutik jorratzea, aniztasuneko bizikidetzatza eta eskubideen berdintasuna bultzatzeko.

Esparru horretan, botere publikoak ere tartean dauden eragile erabakigarriak izan behar dute berdintasunean bizikidetzatza eragozten duten oztopoak errotik kentzeko: politika publikoak diseinatzen ditugunean, gogoan izan behar dugu egoeren aniztasuna, pertsona guztien eskubideak errespetatzeko. Erakundeek esku hartuko dute desorekak eta injustiziak zuzentzeko, eta pertsona nahiz talde guztiek beren eskubideak gauzatzeko aukera berberak izatea bultzatuko dute.

---

<sup>20</sup> Arartekoa, Euskadiko transgeneroen eta transexualen egoerari buruzko txostena [http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_1719\\_3.pdf](http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_1719_3.pdf)

<sup>21</sup> Elkartu Federazioa: Gipuzkoan desgaitasun fisikoa duten pertsonen egoerari eta beharrezkoen buruzko azterlan-diagnostikoa. <http://elkartu.org/pdf/Estudio-diagnostico-de-situacion-y-necesidades-de-las-personas-con-discapacidad-fisica-de-Gipuzkoa.pdf>

<sup>22</sup> Euskadiko erlijio aniztasunaren kudeaketa positiboari buruzko txostena, Eusko Jaurlaritzatza, 2015eko abendua.

#### 1.4. Foru Aldundiaren aurrekariak eta egitura.

Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren helburu nagusia hau da: *“bakea behin betiko eta modu itzulezinean finkatzen, gizarteko bizikidetzaren bideratzen eta Gipuzkoako kultura demokratikoan sakontzen laguntzea. Horretarako, Gipuzkoako gizartean sustatu behar da giza eskubideen gaineko ezagutza eta errespetua<sup>23</sup>”*.

Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak argi eta garbi adierazi zuen 2016-2019 Jarduketako Programan Gipuzkoako elkarbizitzaren aldeko apustua: bizikidetzaren gaur egun landu beharreko funtsezko esparrua da, ETaren behin betiko amaiera finkatzeko testuinguru honetan egonda, giza eskubideen gaineko errespetuan, bakearen defentsan eta bizikidetzaren nahiz adiskidetzaren kulturarekin konpromisoa hartuta normalizazio politikoa lortu nahian.

Baina, bakearen eta bizikidetzaren itxaropen eta erabakigarritasun hori egia bihurtzen laguntzeko asmoa izateaz gain, Gipuzkoako Foru Aldundiak badaki zein diren **gure inguruan dauden aniztasun ezberdinetan bizikidetzaren arloan jarduteko beharrik**.

Hori dela eta, bakearen eta elkarbizitzaren kultura sustatzearen inguruko lanaz harago, Foru Aldundia berariaz **giza eskubideen, diskriminazio ezaren eta aniztasuneko bizikidetzaren** auzia jorratzen ari da.

Gipuzkoan ikusten dugu pertsona guztiek ez dituztela beren eskubideak gauzatzeko aukera berdinak: diskriminazioa edo esparru sozial, kultural eta politikoetan sarbiderik ez izatea gaur egun oraindik errealitatea da beste herrialde batzuetatik migratu duten, beste jatorri bat duten, edo gure inguruan gehiengoaren barruan ez dagoen etnia batekin beren burua identifikatuta ikusten ez duten pertsona askorentzat. Gaitasun ezberdina duten pertsonak, sarritan, diskriminazioa dakarten hainbat egoerari egin behar diete aurre, eta, gaur egun, genero identitatearen edo sexu orientazioaren eskubideak eguneroko bizitzan baliatzean, hainbat desberdintasun sortzen dira.

Foru Aldundiko Zuzendaritzaren lanean, gainera, adostasuna da irizpide nagusia: *“bizikidetzarekin, eta gure herri eta hirietan oinarritzekoak diren adostasun sozial eta politikoekin zerikusia duen oro bilatu eta bultzatuko du; hori dena giza eskubideekin duen konpromiso etikoa eta erabatekoa oinarri hartuta”*.

Gainera, zeharkako 3 ardatz ezartzen ditu, oinarri hauek hartuta:

- Giza duintasuna, diskriminazio eza eta giza eskubideetarako pedagogia
- Hizkuntza berdintasuna, genero berdintasuna
- Kultura demokratikoa eta herritarren parte-hartzea sustatzea

<sup>23</sup> 2015-2019rako Kudeaketa Plan Estrategikoa, Gipuzkoako Foru Aldundia.

Hala, Jarduketa Planean helburu nagusiari erantzuten dioten programa hauek identifikatu ziren:

- I. Bakerako bizikidetza
- II. Bizikidetza aniztasunean
- III. Kultura demokratikoa

Aniztasuneko Bizikidetzarako Foru Planak II. Programa hartzen du oinarri, eta **Foru Aldundian Gipuzkoako aniztasuna kudeatzean, koordinazioa bultzatzea da helburua, hasieratik diskriminazio ezaren printzipioa jorratuta** eta eskubideen ikuspuntua aintzat hartuta. Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak sustatuko du Plana bera eta diskriminazio ezaren inguruko ekintzak Foru Aldundiaren departamentu arteko batzordean sartzea, batzorde horretan integratzen eta koordinatzen baitira zeharkako politikak.

Ondoren ikusiko den bezala, Gipuzkoako Foru Aldundiak jada garatzen ditu diskriminazioaren esparruko hainbat ekintza, beste zuzendaritza eta arloetatik sustatuta. Aldundiak esparru horretan hartuta duen konpromisoaren adibide bat da Elkar-EKIN Gipuzkoako Gizarteratze Plana 2016-2020. Plan horren 4. helburua diskriminazio ezari eta gizarteratzeari buruzkoa da, arreta berezia jarriz diskriminatutako pertsonen zaugarritasunari.

## 2. Laneko esparru orokorra

### 2.1. Eginkizuna.

- **Berdintasunaren eta diskriminazio ezaren printzipioa oinarri hartuta**, helburua da aniztasunaren eskubidea jorratzea Foru Aldundiko ekintza guztietan.
- **Gizarte kohesioa, diskriminazio eza eta Gipuzkoako herritar guztien bizikidetzaz bultzatzen duten ekintzak sustatzea**, jatorria, hizkuntza, kultura, sexu orientazioa, erlijioa edo ideologia edozein izanik ere.
- **Espazioak eta ekintzak egituratzea eta sortzea**, betiere elkarren arteko **ezagutza eta onarpena** ahalbidetzeko, sinergiak sortzeko eta **bizikidetzarako proposamen adostuak** eraikitzeko.
- **Koherentziaz jokatzeko** Gipuzkoan dauden **edozein motatako aniztasunetan**, eta aukera berdintasuna bermatzen duten politika publikoak bultzatzea.

### 2.2. Helburuak

Planak bi urteko indarraldia izango du (2017-2019): epe laburra da, eta aniztasuna eta diskriminazio eza modu koordinatuan eta zeharkakoan kudeatzeko garrantzia erakustea du helburu; izan ere, lehenengoz bultzatuko da Gipuzkoako Foru Aldundian helburu hori duen Plana. Era berean, Plana Gipuzkoako lurralde osoan lantzea da helburua.

Denbora horretan, lehen helburu hauek lortzeko ahalegina egingo da:

- Gure gizartea kudeatzeko, diskriminazio ezak eta aniztasunak duten garrantzia ikusaraztea.
- Foru Aldundian zeharkako lan bat izatea, bereizkeriaren aurka borrokatzeko lan koordinatua bermatu ahal izateko.
- Gipuzkoako herritarren eta eragileen artean elkartzeko guneak eta parte hartzeko guneak sortzea diskriminazio ezaren alde.
- Lurraldean aniztasun egoera argia identifikatzen duten ikasketak izatea eta gerora begira politika eraginkorragoak ezartzen laguntzea.

### 2.3. Planaren oinarriak eta jarduketa eremuak

Berdintasuna eta diskriminazio eza giza eskubideen nazioarteko arauen oinarritzko printzipioak dira. Pertsona orok du, bereizketarik egin gabe, giza eskubide guztiak baliatzeko eskubidea. Horren barruan sartuko dira legearen aurrean tratu berdina jasotzeko eskubidea eta hainbat arrazoiengatik diskriminazioaren aurka babestua izateko eskubidea.

Diskriminatzeak esan nahi du pertsona bati edo pertsona talde bati tratu ezberdina eta kaltegarria ematea beste batzuekin alderatuta, ezaugarri berezi bat edo bat baino gehiago dituzten, edota talde jakin batekoak diren aintzat hartuta. Ondorio gisa, pertsona batzuek ez dituzte gizarte osoak dituen eskubide eta aukera berberak. Hala, diskriminazioak eragotzi egiten du pertsonen erabateko ahalmena garatzea, gizarte bazterketa eragiten du, eta oinarritzko eskubideak urratzea dakar.

Diskriminazioaren aurkako politiken helburua, beraz, hau da: pertsona edo talde jakin batzuek oinarritzko giza eskubideak baliatu ahal izateko oztopoak errotik kentzea hainbat esparrutan; besteak beste, hezkuntzan, osasun arloan, prestazioetan, gizarte zerbitzuetan, etxebizitzan, eta abar.

Planaren ezaugarri nabarmenena eta **ardatz nagusia hau da: tresna berberaren bidez, Foru Aldundian, Gipuzkoan dauden aniztasun guztien aurrean diskriminazio eza bultzatzea.** Talde eta pertsona guztiek ezaugarri bereziak eta definituak dituzten heinean (beharrizan bereziei aurre eginez erantzun beharko litzaieke), Foru Aldundiak diskriminazioaren aurka borrokatzeko politikak bultzatzea du helburu, pertsona guztiek beren aniztasunean bizitza erabat garatzeko aukera berbera izan dezaten.

Aniztasuna hainbat identitate eta parametroekin osatzen da. Horiek guztiak elkarri lotuta daude, eta ezin dira sailkatu edo sartu jokabide hermetikoen arabera. Era berean, diskriminazioa ezaugarri edo egoera pertsonal askotan oinarrituta egon daiteke. Baina Plana lantzeko antolaketa praktikoari begira, sarritan aniztasun hauekin lotuta jasan behar dituzten diskriminazio egoera hauek jorratu nahi ditugu:

- Migrazioek eragindako aniztasuna
- Etniek eta/edo talde kulturek eta erlijioek eragindako aniztasuna
- Sexu orientazioak eta/edo genero identitateak eragindako aniztasuna
- Aniztasun funtzionala eta desgaitasuna duten pertsonak
- Eratorritako beste aniztasun batzuk edo aldi baterako aniztasunak

Gipuzkoako Foru Aldundiaren ustez, lurraldean dauden askotariko aniztasunen kudeaketarako, berezita edo kolektiboki jardun beharrean, ezinbestekoa da baterako planteamendu bat egiten duten politikak garatzea, ikuspegi desberdinak biltzen dituzten ekimen eta lan lerroekin, ezaugarri eta premia espezifikoak arreta emateari utzi gabe noski. Hala, diskriminazioaren



aurka borrokatzeko eta aniztasunean oinarritutako bizikidetza bultzatzeko, jarduketa ikuspuntu ezberdinak hartu behar dira kontuan, eta askotariko politikak bultzatu behar dira. Planak esparru hauek hartuko ditu oinarri:

1. Ikerketa
2. Prebentzioa eta sensibilizazioa
3. Prestakuntza
4. Elkartzeko eta parte hartzeko guneak sustatzea
5. Foru Aldundiko barne koordinazioa

Ardatz horiek elkarri lotuta daude hainbat aplikazio praktikoetan, eta Plan hau antolatzeko lan-esparrua ematea besterik ez dute helburu. Gainera, helburua ez da zehaztutako esparru horien nahiz egin daitezkeen ekintzen zerrenda zehatza eta itxia egitea, ondorengo bi urteetan diskriminazio ezaren aldeko ekintzara bideratzea baizik.

#### 2.4. Foru Aldundiko beste arlo batzuekin koordinatzea.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak irizpide garbi bat du: koordinazioa eta ez-bikoizketa. Beraz, jarraian zenbait foru arlo identifikatzen ditugu, zeintzuekin jarduketarako sinergia garbiak ditugun, eskumen esparruagatik, nahiz aukera berdintasuna eta aniztasunaren kudeaketa sustatzen dituzten neurriak garatzen egin duten bideagatik. Identifikatzen ditugun foru arloen zerrenda ez da itxia, eta zabaltzen eta egokitzen joango da Planaren inplementazioak iraungo duen bi urte hauetan. Helburu nagusia hau da: diskriminazio ezaren printzipioa sektoreko politiketan zeharka txertatzeko aurrerapausoak ematea.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren beste programa batzuen artean, nabarmentzekoa da Elkar-EKIN. 2016-2020 Gizarteratzeko Plana, plan honen helburuekin duen lotura bereziarengatik. Gizarte Politikako Departamentuaren gidaritzapean dagoen Elkar-EKIN planaren misioa da “denon artean, elkarlanean, Gipuzkoan gizarte solidarioagoa, berdinaagoa eta inklusiboagoa lortzea pertsonen gizarteratzeko arriskua sortzen duten faktoreak ezabatuz eta pertsona ahulenei gizarteratzea errazteko baliabide eta bitarteko egokienak emanez”.

DIPUTATU NAGUSIAREN ALORRA	KULTURA, TURISMO, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA	GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUA	EKONOMIA SUSTAPENeko, LANDA INGURUNEKO ETA LURRALDE OREKAKO DEPARTAMENTUA	GOBERNANTZAKO ETA GIZARTEAREKIKO KOMUNIKAZIOKO DEPARTAMENTUA
Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa	Kultura Zuzendaritza Nagusia	Mendekotasunaren eta Desgaitasunaren Arretarako Zuzendaritza Nagusia	Lurralde Oreako Zuzendaritza Nagusia	Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritza
Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusia	Gazteria eta Kirol Zuzendaritza Nagusia	Haurren Babeseko eta Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia	Nekazaritzako eta Landa Garapenerako Zuzendaritza Nagusia	Kanpo Harremanetako Zuzendaritza Nagusia
Kudeaketa Estrategiako Zuzendaritza Nagusia	Garapenerako Lankidetzako Zuzendaritza Nagusia	Plangintzako, Inbertsioetako eta Prestazio ekonomikoetako Zuzendaritza Nagusia		



### 3. Ekintza Plana

Jarduera eremua	Helburuak	Arreta berezia	Ekintzak	Hauen gidaritzapean:	Hauekin koordinatuta:	Urtea
1 Ikerketa	Informazio eguneratua izatea, aniztasuna kudeatzeko premiak hobeto identifikatzeko	Ikerketa bereziak eta diagnostikoak	Diskriminazioari eta LGTBi pertsonetikiko indarkeria sexistari buruzko azterketa	Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza GFA	Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa (GFA) – Aurre! Plana	2018
			Gipuzkoako erlijio aniztasunaren mapa soziologikoa	Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza GFA	Eusko Jaurlaritza – Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia	2018-2019
			Ijito Herriaren errealitatearen azterketa: diskriminazioa eta estereotipatzea, arreta berezia jarriz ijito emakumeenganako askotariko diskriminazioetan	Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza GFA	Gizarte elkarteak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa (GFA)	2018-2019
			Emakume migratzaileen errealitate berezien azterketa	Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza GFA	Gizarte elkarteak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa (GFA) – Aurre! Plana	2018-2019
			Gipuzkoako hizkuntza aniztasunaren mapa	Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusia GFA		2018-2019
			1950 eta 1975 artean Gipuzkoan izandako migrazio prozesuen azterlana	Kultura Zuzendaritza Nagusia GFA	EHU eta Ramón Rubial Fundazioa	2018
			Jarraipen azterlana: Bertako komunitateak migrazioaz duen pertzepzioa	Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza GFA	Ikuspegi	2019
		Ezagutza sortzea	Gaiaren inguruan hausnartzeko topaguneak egon daitezela sustatzea (esparru akademikoa, GKEak eta elkarteak, espezialistak, eta abar)	Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza GFA	Kudeaketa Estrategiako Zuzendaritza Nagusia (GFA) Giza Eskubideen Katedra EHU Eusko Ikaskuntza	2017-2019



			Haurtxoko eta Gazteleku zerbitzuan hobekuntzak sustatzeko prozesuak identifikatzea (inklusioa, berdintasuna, euskara, eta abar)	Gazteria eta Kirol Zuzendaritza GFA	Haurtxoko eta gaztelekuak	2017-2019
Aniztasuneko jardunbide egokiak identifikatzea	Aniztasunaren arloko praktika arrakastatsuen jarraipena, bai toki mailan, bai nazioartean	Arreta jartzea nazioarteko sareei eta aniztasunaren arloko ekimenei	Kanpo Harremanetako Zuzendaritza Nagusia eta Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza GFA			2017-2019
		Aniztasunean interesgarriak diren ekimenen hedapena Elkar-EKIN programaren barruan	Haurren Babeseko eta Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia GFA			2017-2019
		Haurren, gazteen eta aniztasunaren inguruan interesgarriak diren ekimenak identifikatzea Gaztematika programaren barruan	Gazteria eta Kirol Zuzendaritza GFA	Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sistema (Gaztematika)		2017-2019



Jarduera eremua	Helburuak	Arreta berezia	Ekintzak	Hauen gidaritzapean:	Hauekin koordinatuta:	Urtea
2  Prebentzioa eta sentsibilizazioa	Askotariko identitateak dituzten pertsonen gizarte-gaitzespena eta parte hartzeko nahiz erabateko sarbidea izateko desberdintasunak identifikatzea	Prebentzioa bizikidetzaren gerora begira ez dadin narriatu, gizartearen sumatzen diren asimilazio joeretan eta egon daitezkeen diskriminazio fokuetan arreta jarri	Astaldi Foroa ekimena eta Gure Anitza zigilua: arreta gazteriarri (Gaztematika) eta gazteen sexu aniztasunari	Gazteria eta Kirol Zuzendaritza GFA	Euskadiko Gazteriaren Kontseilua  Aisialdiko eskolak, haurtxokoak, gaztelekuak	2017-2019
			Prebentzio jarduerak tutoretzapeko zentroetan dauden adingabeekin eta yihadismoa: "Elkarbizitza Helburu" programa	GFA - Haurren Babeseko eta Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia	Euskal Bilgune Islamiarra (EBI)	2017
			Arreta migratzaileen egoerari, landa ingurune sasoiko langileen esparruan	Nekazaritzako eta Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusia	Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza GFA	2017-2019
			Gazteen lan prekarietateari buruzko sentsibilizazio kanpaina	Gazteria eta Kirol Zuzendaritza GFA	Euskadiko Gazteriaren Kontseilua	2017-2019
	Aniztasunak bizikidetzaren duen eginkizunaren ikuspegi positiboa bultzatzea	Gizartea sentsibilizatzeko kanpainak	Migratzaileen, ijito herriaren eta LGBTIQ+ pertsonen egoerari buruzko kanpainak eta horren hedapena	Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza GFA	Eraberean sarea  Gizarte elkarteak	2017-2019
			Sentsibilizazioa gizarteratze gaietan - Elkar-EKIN programa	Haurren Babeseko eta Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia GFA		2017-2018
			Egun garrantzitsuak ospatzea berdintasunaren eta diskriminazio ezaren printzipioan oinarritutako mezu instituzionalekin.	Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza GFA	Foru Aldundiko zuzendaritza guztiak	2017-2019
			Aniztasuneko bizikidetzako, giza eskubideetako eta gizartea eraldatzeko hezkuntzako proiektuak	Diru laguntzak ematea talde berezien eskubideak sustatzeko: LGBTI, desgaitasuna duten pertsonak,	Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza GFA	Gizarte elkarteak eta udalerrriak



		sustatzea Gipuzkoan	eta abar.			
			Diru laguntzak ematea gizartea eraldatzeko hezkuntza proiektuei, emakumeen eta talde berezien eskubideak barne: LGBTi, errefuxiatuak, eta abar	Garapenerako Lankidetzako Zuzendaritza Nagusia GFA	Gizarte elkarteak Eusko Jaurlaritza	
			Gizarte Ekimenerako Laguntza Plana ezartzea, gizarte esku-hartzeko programak abiarazteko pertsonekin, familiekin, taldeekin eta komunitateekin	Plangintzako, Inbertsioetako eta Prestazio Ekonomikoetako Zuzendaritza Nagusia GFA		

Jarduera eremua	Helburuak	Arreta berezia	Ekintzak	Hauen gidaritzapean:	Hauekin koordinatuta:	Urtea
3 Prestakuntza	Aniztasunaren eta diskriminazio ezaren arloan funtsezkoak diren eragileen trebakuntza indartzea	Trebakuntza eta jardunaldiak gizarte zibilarekin eta gizarte eragileekin	Aniztasunaren, diskriminazio ezaren eta gizarteratzearen inguruko eguneratze eta lan jardunaldiak, arreta jarritik diskriminazioaren inguruko errealitate berrietan (errefuxiatuak, islamofobia, gorroto delituak, eta abar)	Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza GFA	Biltzen, foru elkarteak, Eraberean sarea, Haurren Babeseko eta Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia, unibertsitatea, gizarte elkarteak, eta abar	2018-2019
			Aniztasunaren ikuspegia txertatzea elkarte feminista eta emakumeen elkarteei emandako prestakuntza eta aholkularitza prozesuetan, beren proiektuak egin ditzaten	Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Organoa	Elkarte feministak eta emakumeen elkarteak	2018-2019
			Integrazioan hizkuntzen eta euskararen zereginen inguruko mintegia	Hizkuntza Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusia		2018
			Bizikidetzaren, aniztasunaren eta gatazken prebentzioaren inguruko trebakuntza gazteleku eta haurtxokokoetako hezitzaileentzat	Gazteria eta Kirol Zuzendaritza GFA	Gazteleku, Haurtxokoak, eta abar	2018-2019
			Bizikidetzaren eta aniztasunaren inguruko trebakuntza Udalekuak eta Gazte Oporraldiak programan, zuzendariekin eta begiraleekin, foroak ere sortuz	Gazteria eta Kirol Zuzendaritza GFA	Aisialdiko eskolak, eta abar	2018-2019
			Gizarte eraldaketarako hezkuntza: (H)ABIAN 2030 Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren euskal Estrategia da, lortu beharreko orientabide eta aldaketa batzuk planteatzen dituena, hainbat eragile eta subjektuk, beren aniztasunetik, ekarpenak eginez	Garapenerako Lankidetzako Zuzendaritza Nagusia	Eusko Jaurlaritza Euskal Fundoa Gainerako aldundiak Hiriburuetakoko udalak	2017-2019
			Kultura eragileak irisgarritasun unibertsalaren eta kulturaren izaera inklusiboaren sustapenean sensibilizatzeko trebakuntza	Kultura Zuzendaritza Nagusia GFA	Elkartu	2017
			Trebakuntza eta	Aniztasunaren, diskriminazio ezaren eta	Bizikidetzaren eta Giza	Foru Aldundiko zuzendaritza



		jardunaldiak udaletako eta GFAko ordezkariekin	gizarteratzearen inguruko eguneratze eta lan jardunaldiak, arreta jarri diskriminazioaren inguruko errealitate berrietan (errefuxiatuak, islamofobia, gorroto delituak, eta abar)	Eskubideen Zuzendaritza GFA	guztiak Elkarbizi sarea Udalerriak	
			Bizikidetzaren eta aniztasunaren inguruko trebakuntza Gazteriako teknikariekin	Gazteria eta Kirol Zuzendaritza GFA	Udalerrietako teknikariak	2018-2019





Jarduera eremua	Helburuak	Arreta berezia	Ekintzak	Hauen gidaritzapean:	Hauekin koordinatuta:	Urtea
4 Elkartzeko eta parte hartzeko guneak bultzatzea	Gizartean funtsezkoak diren eragileekin batera elkarrizketak izateko eta parte hartzeko bideak zabaltzea eta sendotzea	Aniztasunen inguruko eragileen sareak	Aniztasunaren arloan Gipuzkoan dauden sareetan parte hartzea	Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza GFA	Eraberean sarea	2017-2019
		Aniztasuna udalerrietan	Aniztasunaren gaia sartzeko udal ordezkarien artean	Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza GFA	Elkarbizi sarea Udalerriak	2017-2019
		Migrazioak eta babesa	Migratzaile eta errefuxiatuen eta Gipuzkoako kolektibo eta eragile sozial eta ekonomikoen arteko topaketarako eta trukerako espazio eta prozesu barne-hartzaileak	Garapenerako Lankidetzako Zuzendaritza Nagusia	Emaus Fundazioa	2017-2019
		Emakumeen eskubideak eta aniztasuna	Aniztasuna, eta emakume migratzaileen, etnia gutxiengoaren eta erlijioen partaidetza sustatzea GUNEAn (Gipuzkoako mugimendu feministaren eta emakumeen elkarte mugimenduaren solaskidetzarako espazioa)	Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa	Elkarte feministak eta emakumeen elkarteak	2017-2019
		Emakumeen eskubideak eta aniztasuna	Aniztasuna txertatzea GUNEaren ordezkarietan, emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2/2015 Foru Arauaren jarraipena egin eta ebaluatzeko Batzordean (hirugarren xedapen gehigarria.1)	Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa	Elkarte feministak eta emakumeen elkarteak	2017-2019
		Partaidetza soziala aukera berdintasunean	Gizarte Kontseiluan aniztasunean parte hartzea bultzatzea	Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritza		2017
			“Irakurketa Erraza/Lectura fácil” programa ezartzea: helburua da euskararen mintzamina sustatzea, euskarazko testuen ulermena lantzea, eta, orokorrean, irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsonak laguntzea	Kultura Zuzendaritza Nagusia GFA	Koldo Mitxelena Kulturunea	2017-2019
Cultura Accesible e Inclusiva programa	Gazteria eta Kirol Zuzendaritza GFA		2017-2019			



			Kultura Digitala-Kode_Tu programa	Gazteria eta Kirol Zuzendaritza GFA	Orona Fundazioa eta Kode Eskola	2017-2019	
Udal mailan aniztasun desberdinei buruzko lana bultzatzea	Udal harrera planak	Gipuzkoan diskriminazio ezaren arloan dauden egiturak eta baliabideak bultzatzea	Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza GFA	Elkarbizi sarea	Udalerriak	2017-2018	
	Udalerri txikiak	Aniztasunari buruzko sareetan udalerri txikien parte-hartzea sustatzea	Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza GFA	Elkarbizi sarea	Udalerriak	2018	
	Emakume migratzaileak eta berdintasunerako tokiko politikak	Emakume migratzaileen elkarteek lurraldeko udalerrietako berdintasun teknikariekin duten langunearen esparruan egiten duten lana aurkeztea, beren jardueretan emakumeen aniztasuna txertatu dezaten	Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa	Udalerriak eta emakume migratzaileen elkarteak		2017-2019	
	Emakume migratzaileak	Emakume migratzaileak ahalduzko esperientzia pilotu bat garatzea, euskaraz eta gaztelaniaz alfabetatzeko –Empalabramiento programa. Urola-Erdia eskualdea	Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa			2017-2019	
Bizitzaren arlo desberdinetan parte hartzea	Mendekotasunean eta desgaitasunean arreta jartzea	Hitzarmenak bultzatzea hirugarren sektoreko erakundeekin, diruz laguntzeko gizarteratzeko programak, talde desberdinei zuzendutako gizarteratze programa bereziak, arreta psiko-sozialeko programak, eta abar.	Mendekotasunaren eta Desgaitasunaren Arretako Zuzendaritza Nagusia	Hirugarren sektoreko erakundeak		2017-2019	
	Aisia eta kirola	Jardueretara eta kirol ekipamenduetara aukera berdinetan sartzea sustatzeko ekintzak	Gazteria eta Kirol Zuzendaritza GFA			2017-2019	
	Haur eta gazteen parte hartzea		“Udalekuak eta Gazte Oporraldiak” programak: hezkuntza behar bereziak dituzten haurrentzat (haurrak eta gazteak, desgaitasuna dutenak, beste jatorri batzuetakoak, egoera sozio-ekonomiko konplexuak, eta abar) % 5eko plaza kopurua bermatuko da	Gazteria eta Kirol Zuzendaritza GFA			2017-2019
			Gaztematika programa: haur eta gazte arreta berezia bermatzea udal mailan	Gazteria eta Kirol Zuzendaritza GFA	Haurtxokoak, Gaztelekuak		2017-2019
			Europako gazteen topaketak – Erasmus+ programa	Gazteria eta Kirol Zuzendaritza GFA	Azpeitiko Udala		2017-2019



Jarduera eremua	Helburuak	Arreta berezia	Ekintzak	Hauen gidaritzapean:	Hauekin koordinatuta:	Urtea	
5 GFArekin koordinatzea	Prebentzioa eta sentsibilizazioa	Diskriminazio eza politiken oinarri gisa	Sentsibilizazio kanpainak eta mezu instituzionalak	Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza GFA	GFAko zuzendaritza guztiak	2017-2019	
			Aniztasunaren ikuspegia txertatzea GFAk udalen eta gizarte zibilaren jarduerari ematen dizkien diru laguntzen urteko deialdietan	Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza GFA	GFAko zuzendaritza guztiak	2017-2019	
	Prestakuntza	Diskriminazio eza eta zeharkako politikak	Trebakuntza ematea GFAko langileei	Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza GFA	GFAko zuzendaritza guztiak	2018-2019	
	Elkartzeko eta parte hartzeko guneak	Tokiko eta nazioarteko sareak	Diskriminazioaren aurka lan egiteko foroetan Aldundiaren partaidetza aktiboa bermatzea	Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza GFA  eta  Kanpo Harremanetako Zuzendaritza Nagusia	Eraberean sarea  Elkarbizi sarea  Erlai sarea  CGLU  Nazio Batuak	2017-2019	
			Parte-hartze prozesuak	Arreta Foru Arau berriari, aniztasuna sustatzeko formula espezifikokoak txertatzeko	Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritza		2018
			Aniztasuna bermatzea GFAk proposatutako parte-hartze prozesuetan	Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritza	2017-2019		
	Erakundeen arteko koordinazioa	Diskriminazio eza eta zeharkako politikak	Plana eta bere ekintzak Foru Aldundiko departamentu arteko batzordearen lanean txertatzea	Kudeaketa Estrategiako Zuzendaritza Nagusia (GFA)	GFAko zuzendaritza guztiak	2017-2019	
			Aniztasuna zeharkakotzea Aldundiaren programa nagusietan, besteak beste, hauetan: Elkar-EKIN programa, Aurre! Plana, Gaztematika programa, Etorkizuna Eraikiz programa, eta abar.	Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza GFA	GFAko zuzendaritza guztiak	2017-2019	



			GFaren garapenerako lankidetzaren jarduera esparru estrategikoa sortzea, bertan aniztasuna sartuz	Garapenerako Lankidetzako Zuzendaritza Nagusia	GFako zuzendaritza guztiak	2017-2019
			Garapen politiken koherentzia sustatzea: elkarrizketa instituzionala GFAn	Garapenerako Lankidetzako Zuzendaritza Nagusia	GFako zuzendaritza guztiak	2017-2019